

Banaketa eta komunikazio kanalak:

Gure bezeroekin komunikatzeko modu nagusia, web gunean egongo den (kontaktatu gurekin) botoia sakatzen izango da. Botoi honek telefono zenbaki bat emango die bezeroei baita posta elektronikoa ere, horrela edozein galdera edo laguntza eskatu ahal digute.

Aldi berean, gure produktuaren balio proposamena, web gunearen bidez eskainiko diegu bezeroei. Imahaia-ren ezaugarri guztiak egongo dira web-gunean. Bestalde, eskola zentro bat edo edozein zentro bat enkargu bat egin ondoren, haiekin kontaktuan jarriko gara zuzenean, enkargua noiz entregatuko dugun zehazteko. Gure mahaiak nahiko handiak direnez, garraiatzeko enpresa bat behar izango dugu mahai guztiak transportatzeko. Entregatzeko data zehaztu ondoren, garraio-enpresarekin kontaktuan jarriko gara eta mahai guztiak zentro horretara bidaliko ditugu.

